

URKABUSTAIZKO UDALEKO ORDENANTZA FISKALA

ETXERAKO LAGUNTZA ZERBITZUA

1. artikulua.- Xedea

Etixerako Laguntza Zerbitzuaren prezio publikoak arautzea da ordenantza honen xedea. Honako alderdi hauek arautzen ditu, zehazki:

- Zerbitzuaren erabiltzaileak ordaindu beharko duen prezio publikoaren zatia zehazteko irizpideak.
- Sortzapena eta ordainketa arautuko dituzten irizpideak.
- Prezio publikoak ordaintzeko betebeharra izango duten pertsonen ahalmen ekonomikoa zehazteko irizpideak.
- Prezio publikoen zenbatekoa eta ahalmen ekonomikoaren arabera ezarriko diren hobarien zenbatekoa.

2. artikulua.- Eremua

Ordenantza fiskal hau Etixerako Laguntza Zerbitzuan ezarriko da, bai zuzeneko kudeaketa-erregimeneko zerbitzuan, bai beste herri-erakunde batzuekin hitzartutako zerbitzuan, bai erakunde pribatuekin lotutako itunpeko, hitzartutako edo kontratupeko zerbitzuan.

3. artikulua.- Ordaintzeko betebeharra duten pertsonak

1. Prezio publikoa ordaindu beharko dute:

- a) Etixerako Laguntza Zerbitzuaren zuzeneko onuradun diren pertsona fisikoek, baldin eta 1. paragrafo honetako b) eta c) ataletan aurreikusitako egoeretan ez badaude.
- b) Zerbitzuaren erabiltzaileak adingabeak badira, beraien guraso-ahala, tutoretza edo zaintza duten pertsonak ordaindu beharko dute zerbitzua.
- c) Helduei dagokienez, zerbitzuaren onuradunek legezko ordezkariaren edo egitatezko zainzailearen bidez jarduten badute —betiere zerbitzua eskuratzeko araudian aurreikusitakoarekin bat—, azken horiek ordaindu beharko dute zerbitzua; halako kasuetan, baina, ordezkaturako pertsonaren errentaren eta ondarearen kargura ordainduko dute, eta ordezkaturako pertsonaren ahalmen ekonomikoa hartuko da aintzat ordaindu beharreko kopurua zehazterakoan.

2. Hala badagokio, eta era subsidiarioan, zerbitzua ordaindu behar duen pertsonaren aldetik doako besterentzea (transmisioa) jaso duten pertsonak ordaindu beharko dute zerbitzua. Alegia, erabiltzaileak berak, artikuluko honetako 1. paragrafoaren arabera zerbitzua ordaindu behar duen pertsonak, edota haren ezkontideak edo ezkontzaren pareko lotura duen pertsonak —ordenantza fiskal honen lehen xedapen gehigarrian zehazten da lotura mota hori— doan egindako

besterenntzea jaso duten pertsonak ordaindu beharko dute, baldin eta besterenntzea egiteko unean emaleak 60 urte baino gehiago bazituen edota besterenntze hori zerbitzu-eskabidea egin aurretiko 10 urteetan gertatu bada. Ordaintzeko betebeharrak badu gehieneko muga: besterenntutako ondasunek edo eskubideek duten merkatu-balioaren gehieneko zenbatekoa zorra galagarri bihurtzen den unean.

I. TITULUA. ERABILTZAILAREN PARTAIDETZA EKONOMIKOA

4. artikulua.- Prezio publikoa osorik ordaintzea

1. Ordenantza fiskal honetako 3.1. artikuluan arabera Etxerako Laguntza Zerbitzua ordaintzeko betebeharra duten pertsonak osorik ordainduko dute prezio publikoa, horretarako ahalmen ekonomiko nahikoa badute. Gainera, zenbateko hori ordainduko dutela ziurtatzeko berme egokiak formalizatzea eskatzeko aukera egongo da.
2. Lehenengo paragrafoan aurreikusitakoaren ondorioetarako, ordenantza fiskal honen 3.1. artikuluan aurreikusitako terminoetan ordaindu beharko duten pertsonak ahalmen ekonomiko nahikoa dutela joko da, baldin eta ahalmen hori II. eranskinean zerbitzu mota bakoitzerako zehazten diren muga parekoa edo handiagoa bada. Pertsonaren ahalmen ekonomikoa, betiere, ordenantza fiskal honen III. tituluko I. kapitulan aurreikusitakoaren arabera zenbatuko da.
3. Ordenantza fiskal honen 3.1. artikuluan aurreikusitako terminoetan ordaindu behar duen pertsonaren ahalmen ekonomikoa artikuluan honen 2. paragrafoan aipatutako muga azpitik badago, 3.2. artikuluan arabera era subsidiarioan ordaindu behar duten pertsonengana joko da, erabiltzailearen ekarpena osatu eta prezio publikoaren zenbateko osoa betetzen den arte. 3.1. artikuluan arabera ordaindu behar duen pertsonaren ahalmen ekonomikoaren ondorioz, inolako ekarpenik egiterik ez badu, 3.2. artikuluan arabera era subsidiarioan ordaindu behar duten pertsonak zerbitzuaren prezio publiko osoa ordaindu beharko dute.

5. artikulua.- Hobariak

1. 3.1. artikuluan arabera ordaintzeko betebeharra duten pertsonak ez badute prezio publikoa osorik ordaintzeko ahalmen ekonomiko nahikorik (euren ahalmen ekonomikoa II. eranskinean zehaztutako muga azpitik dagoelako), prezio publikoen hobariak eskuratzeko aukera izango dute.
2. Aurreko paragrafoan aipaturiko hobariak progresibitate-printzipioaren arabera ezarriko dira, erabiltzailearen ahalmen ekonomikoa aintzat hartuta. Ahalmen ekonomiko hori, betiere, ordenantza fiskal honen III. tituluko I. kapitulan jasotako irizpideen arabera zehaztuko da.
3. Artikulu honetan aurreikusitako hobariak ordenantza fiskal honen III. eranskinean zehazten dira, eta I. eranskinean finkatutako prezio publikoak indarrean jartzen

direnean ezarriko dira. Prezioak aldatu edo eguneratzen direnean (16. artikuluan xedatzen den bidea erabiliz), dagozkien hobariak ere zehaztuko dira.

6. artikulua.- Erabilera motaren araberako salbuespen partzialak

1. Etxerako Laguntza Zerbitzuaren erabiltzaileek aldi batez zerbitzua erabiltzeari uzten badiote, ez da inolako preziorik sortuko, baldin eta etenaldia ondoz ondoko zazpi egun natural baino luzeagoa bada. Ondorio horretarako, erabiltzaileek gutxienez 7 egun lehenago eman beharko dute horren berri, idatziz, salbu eta larrialdiren bat dela medio (eta behar den bezala justifikatuta) aurreabisuaren epea betetzerik ez badago. Zerbitzua erabiltzen ez den aldia ondoz ondoko 7 egun natural baino laburragoa bada, dagokion prezio publikoa ordaindu beharko da.
2. Epealdi horretan aldi berean beste zerbitzu batzuk erabiltzen badira, ez da inolako salbuespen partzialik ezarriko prezio publikoan.
3. Ez da prezio publikoa ordaintzeko salbuespen partzialik ezarriko, baldin eta zerbitzua eskuratzeko araudiarekin bat, eskatutako informazioa emateko edo dokumentazioa aurkezteko betebeharrean atzerapena egotearen ondorioz gertatzen bada, edota prezio publikoa behin eta berriro ez ordaintzeagatik gertatzen bada.

7. artikulua.- Erabilera libreko zenbatekoa

Erabilera libreko zenbatekoa bermatuta dago, ordenantza fiskal honen III. eranskinean zerbitzu mota bakoitzean ezarriko diren hobariak zehazteko formularen ondorioz.

II. TITULUA. SORTZAPENA ETA ORDAINKETA

8. artikulua.- Sortzapena

Zerbitzua benetan ematen den egunean sortuko da araudi honetan arautzen den prezio publikoa ordaintzeko betebeharra, eta egun horretan hasi eta zerbitzua behin betiko eteten den egunera arte iraungo du.

9. artikulua.- Ordainketa

Esleitutako prezio publikoaren ordainagiria banku-helbideratzearen bidez aurkezten zaion unean —berdin dio osorik ordaindu beharrekoa den, hobariduna den edo salbuespen partzialeko den—, ordainketa burutu beharko du horren betebeharra duen pertsonak.

III. TITULUA. KUDEAKETA ETA LIKIDAZIO ARAUAK

I. KAPITULUA. AHALMEN EKONOMIKOA ZEHAZTEA

10. artikulua.- Ahalmen ekonomikoaren osagaiak

1. 3.1. artikuluan aurreikusitako terminoetan ordaintzeko betebeharra duten pertsonen ahalmen ekonomikoa kalkulatzeko (eta, beraz, prezio publikoan izango duten partaidetza-maila zehazteko), familiaren urteko errenta eta ondarea hartuko dira aintzat. Izan ere, kapitulu honetan xedatutako balorazio-irizpideak ezarriko dira horien gainean.
2. Honako hauek erabiliko dira ahalmen ekonomikoa zenbatzeko:
 - a) Eskura dauden azken datu fiskalen balioak, salbu eta ondorengo dataren batean balio horiek aldarazi dituen gertaera garrantzitsuren bat gertatu bada. Halakoetan, daturik berrienak erabiliko dira.
 - b) Hiri- edo landa-ondareen kasuan, hiru balio hauetatik handiena hartuko da aintzat: katastro-balioa, balio egiaztatua edota Administrazioak zehaztu duen balioa zergatarako eta preziotarako, kontraprestaziorako edo eskurapen-baliorako.

11. artikulua.- Errenta

1. Aurreko artikuluan aurreikusitako ahalmen ekonomikoa kalkulatzeko ondorioetarako, errenta edo sarrera konputagarritzat joko dira familia-unitateak urtean dituen etekinak eta eskubideak. Lanetik eskuratutakoak izan daitezke edo beste edozein arrazoirengatik eratorritakoak izan daitezke. Eta, betiere:
 - a) Fondo publiko nahiz pribatuen kargurako pentsioak eta prestazio ekonomikoak. Horietatik jasotako diru-sarrera gordinak zenbatuko dira eta, ondorio horretarako, halakotzat joko dira zerbitzuaren hartzaileak berak hartzen dituen pentsioak, subsidioak, prestazio ekonomikoak eta eskubide ekonomikoak, artikulua honetan 2. paragrafoan aurreikusitakoak izan ezik.
 - b) Norberaren konturako lanetik nahiz inoren konturako lanetik datozen etekin oso-osoak.
2. Errenta zehazterakoan, prestazio hauek ez dira aintzat hartuko:
 - a) 39/2006 Legeak, azaroaren 14koak, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoak, xedatzen dituen prestazio ekonomiko finalistak. Alegia: familia-inguruneko zaintzetarako eta zaintzaile ez-profesionalei laguntzeko prestazio ekonomikoa, laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa eta zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa.
 - b) Aipatu berri dugun a) ataleko prestazioen pareko izaera eta xedea duten prestazio hauek:

— Ezintasun handiko osagarria, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina onartzen duen ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako errege-dekretuaren 139.4 artikulua arautzen duena. Gerora, lege horri aldaketa batzuk egin zizkion abenduaren 10eko 52/2003 Legeak, Gizarte Segurantzaren alorreko xedapen berezikoei buruzkoak.

— Ehuneko 75etik gorako desgaitasun-maila duen 18 urtetik gorako seme-alaba baten kargua izateagatiko diru-esleipena, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina onartzen duen ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako errege-dekretuaren 182 bis 2c) artikulua arautzen duena. Gerora, lege horri aldaketa batzuk egin zizkion abenduaren 10eko 52/2003 Legeak, Gizarte Segurantzaren alorreko xedapen berezikoei buruzkoak.

— Beste pertsona baten beharra izateagatiko kotizatu gabeko ezintasun-pentsioaren osagarria, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina onartzen duen ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako errege-dekretuaren 145.6 artikulua arautzen duena. Gerora, lege horri aldaketa batzuk egin zizkion abenduaren 10eko 52/2003 Legeak, Gizarte Segurantzaren alorreko xedapen berezikoei buruzkoak.

— Hirugarren pertsona batengatiko laguntza-sorospena, elbarrien gizarteratzeari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legearen 12.2.c) artikuluan aurreikusitakoa, eta Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko lege orokorraren testu bategina onartzen duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak mantentzen duena, baldin eta aipatu berri dugun Legegintzako Errege Dekretua indarrean sartu zenean onuradunak dagoeneko laguntza hori jasotzen bazuen eta Lege horren xedapen iragankor bakarrean aurreikusitako baldintzak betetzen bazituen.

3. Errenta baloratzeko ondorioetarako, Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontuen Sailak emandako informazioa hartuko da erreferentziatzat, 10.2 artikuluan aipaturiko datu fiskaletan oinarrituta. Honako kontzeptu hauen batura zenbatuko da diru-sarreratzat:

— Laneko etekin osoak

— Jarduera profesionalen, enpresa-jardueren, eta nekazaritza- eta abeltzaintza-jardueren etekin garbiak

— Egotzitako lan-errenta salbuetsi osoak.

Artikulu honetako 2. paragrafoan aipatutako errentarik jasoz gero, prestazio ekonomiko horien ziurtagiriak aurkeztu beharko dira, paragrafo horretan aurreikusitako ondorioetarako salbuetsitako zenbatekoa zehazte aldera.

4. Errentaren hileko konputua zehazteko, urteko errenta hamabi hilekotan banatuko da.

12. artikulua.- Ondarea

1. 10. artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako, ondareztat joko da:

- a) Familia-unitateko kideek titulartasun osoa edo partziala duten ondare eta eskubide ekonomikoen multzoa. Eskura dauden azken datu fiskalak hartuko dira horretarako erreferentziatzat, finantza-aktiboen harira eskatzen den informazioarekin osatuta.
- b) Kalte-ordainak eta kapitalizatutako errentak, berdin dio ekitaldi bakarrean edo gehiagotan sortutakoak izan.
- c) Erabiltzaileak, beraren ezkontideak edo ezkontzaren pareko lotura duen pertsonak —ordenantza fiskal honen lehen xedapen gehigarrian zehazten da lotura mota hori— edota ordenantza fiskal honen 3.2. artikuluan aurreikusitako terminoen arabera, ordaintzeko betebeharra daukan pertsonak doan egindako besterentzeen balioa.

2. Ez da ondarean zenbatuko:

- a) Ohiko etxebizitza, salbu eta aparteko balioa badauka (aparteko balioa duela joko da katastro-balioa 300.000 eurotik gorakoa bada). Halakoetan, muga horretatik gora dagoen katastro-balioa zenbatuko da ondare-ondorioetarako. Ondorio horretarako, ohiko etxebizitzaren kontzeptuaren barruan sartuko dira, etxebizitzaz beraz aparte, garaje bat eta trasteleku bat. Landa- edo hiri-izaerako familia bakarreko etxebizitza bada, banandu gabe dagoen lursail atxikia ere etxebizitza kontzeptuaren barruan sartuko da.
- b) Ondare eta eskubideen gaineko kargak eta zamak, beraien balioa murrizten dutenak.
- c) Zor eta obligazio pertsonalak.
- d) Babes bereziko ondare bati emandako ondare eta eskubideak, Desgaitasuna duten pertsonen ondarea babesteko azaroaren 18ko 41/2003 Legearen, Prozedura Zibilaren Legearen, eta asmo horretarako zerga-araudiaren babesean eman badira. Esan berri duguna ez da aintzat hartuko, ordea, baldin eta ondare horren titularrak eskuratzen badu zerbitzua; izan ere, kasu horretan berorrek estaltzen ditu pertsonaren bizitza-beharrizanak, aipaturiko Legearen 1.1. eta 5.4. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

3. Ondarearen hileko konputua zehazteko, urteko ondarearen zenbatekoa hamabi hilekotan banatuko da.

13. artikulua.- Familia-unitatea

1. Kapitulu honetan aurreikusitako ondorioetarako, familia-unitatearen osaera hauek hartuko dira aintzat:

- a) Zerbitzuaren onuraduna adin nagusikoa bada, familia-unitateko kideztat joko dira:
 - Zerbitzuaren onuraduna bera
 - Beraren ezkontidea edo ezkontzaren pareko lotura duen pertsona, legez onartuta eta behar bezala egiaztatuta, lehen xedapen gehigarrian finkatu bezala
 - Adin txikiko seme-alabak
 - 18 urteko edo gorako seme-alabak, baldin eta ehuneko 65etik gorako desgaitasuna badute, eta betiere eskabidea egindako egunean zerbitzuaren onuradunarekin bizi badira.

- 18 eta 23 urte bitarteko seme-alabak, ikasketa akademiko arautuak egiten badituzte.
- a) Zerbitzuaren onuraduna adingabea bada, familia-unitateko kideztat joko dira:
 - Zerbitzuaren onuraduna bera
 - Beraren gurasoak
 - Neba eta arreba adingabeak
 - 18 urteko edo gorako neba-arrebak, baldin eta ehuneko 65etik gorako desgaitasuna badute, eta betiere eskabidea egindako egunean zerbitzuaren onuradunarekin bizi badira
 - 18 eta 23 urte bitarteko neba-arrebak, ikasketa akademiko arautuak egiten badituzte.

2. Nolanahi ere, pertsona bakoitza familia-unitate bakar bateko kidea izan daiteke.

14. artikulua.- Ahalmen ekonomikoa baloratzeko irizpideak

1. Ahalmen ekonomikoa zehazteko, familia-ondarearen urteko zenbatekoaren honako ehuneko hauek gehituko zaizkio familia-errentaren urteko zenbatekoari. Ehunekoak aldatu egingo dira erabiltzailearen adinaren arabera, ondoren agertzen den bezala:
 - a) 35 urtetik beherakoak, beraien ondarearen ehuneko 3.
 - a) 35 urtetik 65 urtera bitartekoak, beraien ondarearen ehuneko 6.
 - a) 65 urtetik gorakoak, beraien ondarearen ehuneko 20.
2. Era berean, honako irizpide berezi hauek ere ezarri behar dira:
 - a) Familia-unitatean pertsona bakar bat badago, ahalmen ekonomikoa kalkulatzeko, zuzenean ezarriko da 1. paragrafoan aurreikusitakoa.
 - b) Familia-unitatean bi pertsona badaude, ezarri beharreko prezio osoa edo hobariduna kalkulatzeko, hileko ahalmen ekonomikoaren ehuneko 80 erabiliko da (eta 1. paragrafoan aurreikusitakoaren arabera kalkulatu da hileko ahalmen ekonomiko osoa).
 - c) Familia-unitatean bi pertsona baino gehiago badaude, b) atalean aurreikusten den ehuneko 80 horri ehuneko 5 kenduko zaio gainerako pertsona bakoitzeko.
3. Ahalmen ekonomikoaren hileko konputua zehazteko, urteko ahalmen ekonomikoa hamabi hilekotan banatuko da.

II. KAPITULUA. EBAZPENA, BERRIKUSPENA ETA EGUNERATZEA

15. artikulua.- Ebazpena

Organo eskudunaren ebazpenak zehaztuko du zerbitzu horri ezarriko zaion prezio publiko osoa bai eta, hala badagokio, ahalmen ekonomikoaren arabera dagokion prezio publiko hobariduna.

16. artikulua.- Ofiziozko berrikuspena eta komunikazio-betebeharra

1. Etxerako Laguntza Zerbitzuaren truke ordaindu beharreko prezio publikoak (berdin dio osoak, hobaridunak edo partzialki salbuetsiak izan) ofizioz berrikusiko ditu organo eskudunak; bestela, edota pertsona interesdunak, haren legezko ordezkariak edo izatezko zaintzaileak eskatuta berrikusiko ditu, hala berrikusketa indibidualaren esparruan nola berrikusketa orokorraren esparruan. Berrikuspen horien ondorioz, prezio publikoa aldatzeko aukera egongo da, dagokion ebazpenaren bidez, baldin eta hasierako prezio publikoa zehazteko oinarritzat erabili zen ahalmen ekonomikoan aldaketa nabarmenik egon dela egiaztatzen bada.
1. Aurrekoan adierazitakoaren ondorioetarako, ordenantza fiskal honek aipagai duen edozein zerbitzuren erabiltzaileak aldaketarik izan badu bizikidetzagoeran, egoera zibilean, etxebizitzan, errentan, bizikidetzaren ondorioz zenbagarriak diren ondare propioetan edo inorenetan, bai eta berari esleitutako prezio publikoan eraginik izan lezakeen beste edozein egoeratan, horren berri emateko hogeita hamar eguneko epea izango du erabiltzaileak berak nahiz haren legezko ordezkariak edo izatezko zaintzaileak.
2. Administrazio eskuduna ohartzen bada ahalmen ekonomikoan aldaketa egon dela eta aldaketa hori ez dela egoki jakinarazi aurreko paragrafoan aurreikusi bezala, esleitutako prezio publikoa berrikusi eta egoera berrira egokituko du. Bi egoera gerta daitezke:
 - a) Esleitutako prezio publiko berria aurretik esleitutakoa baino handiagoa bada, egoera-aldaketa gertatu zen unetik aurrera ezarriko da atzeraeraginez. Horrenbestez, 3.1. artikuluaaren arabera ordaintzeko betebeharra duen pertsonak aldi horretan metatutako atzerapenak ordaindu beharko ditu.
 - b) Esleitutako prezio publiko berria aurretik esleitutakoa baino txikiagoa bada, ez da atzeraeraginez ezarriko.
3. Administrazioari ahalmen ekonomikoan aldaketa egon dela jakinarazi bazaio eta administrazioari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla eta, 2 hilabeteko epean prezio publikoa berrikusi ez bada, bi egoera egon daitezke:
 - b) Esleitutako prezio publiko berria aurretik esleitutakoa baino handiagoa bada, ez da atzeraeraginez ezarriko.

- b) Esleitutako prezio publiko berria aurretiaz esleitutakoa baino txikiagoa bada, bidegabe kobratutako zenbatekoak itzuli beharko ditu administrazioak.

17. artikulua.- Prezio publikoak eguneratzea

Ordenantza fiskal honetan finkatutako prezio publikoak eguneratzeko beste ordenantza bat beharko da, eta bertan zehaztuko dira, halaber, ezarri beharreko hobariak eta zenbatekoa izango den ahalmen ekonomiko nahikoa.

III. KAPITULUA. PREZIO PUBLIKOENGATIKO ZORRAK

18. artikulua.- Prezio publikoengatiko zorrak

1. Zerbitzuagatik ordaindu behar den prezio publikoaren ordainagiria—berdin dio prezio osoa izan, prezio hobariduna izan— bankutik itzuli eta, ondorioz, zorrik gertatzen bada, zorra kitatzeko eskatuko zaio ordainketa egin behar duen pertsonari, eta 30 egun naturaleko epea izango du ordainketa burutzeko edo ordainketa zatikatzea eskatzeko.
2. Aurreko puntuan aipaturiko epea iragan eta zorra ordaindu ez eta ordainketa zatikatzea eskatu ez bada, administrazio-premiamendu bidez eskatuko da 1. paragrafoan aipatzen den prezio publikoa.
3. Prezio publikoa behin eta berriro ordaindu gabe utziz gero, zerbitzua jasotzeko eskubidea bertan behera gelditeke.
4. Zerbitzua eskuratzeko prozeduran ikusten bada ordenantza fiskal honetako 3.1. artikuluan aurreikusitakoaren arabera ordaintzeko betebeharra duen pertsonak aurretiaz zorrak dituela Etxerako Laguntza Zerbitzuaren prezio publikoan, eskatzaileari 30 egun naturaleko epea emango zaio, jakinarazpena jasotzen duen egunetik aurrera zenbatuta, zor horiek kitatzeko edota zorra zatikatzea eskatzeko, artikulua honetan 1. eta 2. ataletan aurreikusitako terminoetan.

Eskatzaileak ez badu zorra ordaintzen, zerbitzu berria eskuratzeko eskaera bertan behera geldituko da eta beste tramiterik gabe artxibatuko da, organo eskudunak emandako ebazpenaren ondoren. Dena dela, pertsona horrek gerora zorra ordaintzeko aukera izango du, eta zerbitzua eskuratzeko prozedura berri bat abiarazi.

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA. Ezkontzaren pareko lotura

1. Ordenantza fiskal honen ondorioetarako, ezkontzaren pareko loturakotzat joko dira Izatezko bikoteei buruzko maiatzaren 7ko 2/2003 Legean zehaztutako izatezko bikoteak, Lege hori baitago indarrean Euskal Autonomia Erkidegoan.
2. Lotura hori egiaztatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Izatezko Bikoteen Erregistroaren ziurtagiria beharko da edota, hala badagokio, udal erregistroaren ziurtagiria, betiere aipaturiko Legearen 3. artikuluan araututakoari jarraikiz.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. Ezohiko egoerak

1. Etxerako Laguntza Zerbitzuaren erabiltzaileek izan litzaketen egoera sozial eta ekonomiko bereziak direla eta, organo eskudunak hobari partzialak edo osoak finka litzake. Ildo beretik, ordenantza fiskal honetan aurreikusitako zenbateko hobaridunak, zenbateko salbuetsiak eta erabilera libreko zenbatekoak handitzea erabaki lezake.
2. Seigarren artikuluan jasota ez dauden arrazoiak direla eta, zerbitzuaren erabileran etenak gertatzen badira, organo eskudunak prezio publikoaren salbuespen partzialak onar litzake, plaza-erreserbaren kontzeptupean.

AZKEN XEDAPENA. Indarrean jartzea

1. Ordenantza fiskal hau ALHAOn argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.
2. Egun horretan edo hortik aurrera Etxerako Laguntza Zerbitzua eskatzen dutenei ezarriko zaie ordenantza fiskal hau.

I. ERANSKINA
PREZIO PUBLIKOAREN ZENBATEKOA

Etxerako Laguntza Zerbitzua	6,12 €/ordua
-----------------------------	--------------

II. ERANSKINA

AHALMEN EKONOMIKO NAHIKOAREN MUGA

I. eranskinean zehaztutako prezio publikoek indarrean dirauten bitartean, eranskin honetan aurreikusitako kasuetan eta terminoetan ahalmen nahikoa dagoela joko da.

1. Hobariak zehaztearen harira, 5.1. artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako, prezio publikoa osorik ordaintzeko ahalmen ekonomiko nahikoa dagoela joko da baldin eta III. tituluko I. kapituluan aurreikusitakoaren arabera kalkulaturako zenbatekoa hilean 1.500 €-koa edo handiagoa bada.

Era berean, ahalmen nahikoa dagoela joko da pertsonak 50.000 euroko edo hortik gorako ondare konputagarria duenean, nahiz eta III. tituluko I. kapituluan aurreikusitakoaren arabera kalkulaturako ahalmen ekonomikoa aurreko tauletan zehaztutakoa baino apalagoa izan.

III. ERANSKINA HOBARI APLIKAGARRIAK

I. eranskinean ezarritako prezio publikoek indarrean irauten duten bitartean, ondorengo taulan agertzen diren hobariak ezarriko zaizkie ordenantza fiskal honen 5. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, zerbitzuei dagokien prezio osoa ordaintzeko ahalmen ekonomiko nahikoa ez dutenei.

Etixerako Laguntza Zerbitzuaren truke ordaindu beharreko prezio indibidualizatua zehazteko, taula-baremo hau ezartzearen ondorioz sortuko diren zenbatekoak ezarriko dira, familia bakoitzaren hileko ahalmena aintzat hartuta.

FAMILIAREN AHALMEN EKONOMIKOA (EUROTAN)	ZENBATEKO HONETARAINO	ZENBAT	GAINERAKOA, ZENBATEKO HONETARAINO	EHUNEKOA
500,00 €-raino	0,00	0	500,00	0,20
600,00	500,00	1,12	100,00	0,30
700,00	600,00	1,42	100,00	0,40
800,00	700,00	1,82	100,00	0,50
900,00	800,00	2,32	100,00	0,60
1.000,00	900,00	2,92	100,00	0,75
1.100,00	1.000,00	3,67	100,00	0,90
1.200,00	1.100,00	4,57	100,00	0,55
1.300,00	1.200,00	5,12	100,00	0,40
1.400,00	1.300,00	5,52	100,00	0,30
1.500,00	1.400,00	5,82	100,00	0,30
1.500,00 € baino gehiago		Gehienezko tarifa		6,12 €/ordua

Ordaindu beharreko zenbatekoa zehazte aldera, hilean onartutako ordu-kopurua zehaztu beharko da. Horretarako, 4,3rekin biderkatuko da asteko ordu kopuruen batura.